

Jarraipide bat

TXILLARDEGI



GAUZA ezaguna da Eesti (Estonia) baltikararren patu hitza: Sobietar Batasunean 50 urte pasa ondoren, eta besteak beste, bere demografia errotik aldatua aurkitu du. Estoniarren % 40 da errusiarra, are gehiago ere Ekialdeko eskualdeetan eta Tallinn hiriburuan.

Hots, urte haietan etorritako erusiarrei 'estoniarkuntza automatikorik' ez ematea erabaki dute estoniarrak. Estoniar nazioztasuna lortzeko *hitzkuntza* jakin behar da, baita Estoniako *geografia* eta *kondaira* apur bat ezagutu ere.

Errusiarrak egindako presioa dela-ta, pittin bat leundu dira azterketak. Adibidez: 62 urteko gorako kandidatoei ez zaie idatzizko etsaminik egingo. Eta hitzegi minimoa, benetan minimoa da; eguneroko bizieran beharrezkoak diren hitzez osatua.

Hitz batez: erusiarrek ikasten duten erusiar-kumeen ikaskaldiaren bukaera eta etorkinek pasa behar duten etsaminak, maila berekoak omen dira.

Baina estoniar gobernuek ez du amore eman: bertako hizkuntza apur bat bederen ezagutu gabe, ez dago estoniar nazioztasuna lortzerik. Hauxe da Estoniako Gobernuak joan den Apirilaren 15ean onartu duen legea.

Urtarrilean, Otsailean eta Martxoan barrena, 10.000 eskabide izan dira. 1993 honen bukaerarako, horretara, 40.000 etorkinek izango dute pasaturik hizkuntza, geografia eta kondaira azterketa hori.

Geure herri zoritxarreko honetan eguneroko, eta Euzkadi-ren izenean, jasaien duguna ezaguturik, gauza bat aitortu behar dugu deplakuri: bekaizkeriaz begiratzen dugula Tallinn aldera.

Gartzela gogorra da!

GEXAN LANTZIRI



HORRA zer zioen, gure gartzelako 4. estaiaren isolamenduan da goen preso batek. Pariseko komisaleari batean, 17 urteko Zairiar gaztea tiroz hil zuenak, hain zuzen!

Gisa bertsuko solasa izan zuen Garreta medikuak ere, epaileak gartzelaratzeko agindua emana ziola jakitenean: «Gogorra da emaztea eta alaba utzi beharra izatea, preso joaiteko...».

Polizia hori, gartzelako gelan bakarrik egonez oharatu da haragizko bihotz bat bada... Besteie soñfrierazten zieno, nonbait harrizkoa baitzukeen... Ordenaren eta beldurraren mutila zen, halabaina!

Halaber medikuak, odol kutsatua salduz, besteak soñfrierazten eta hilerazten zituenean, ez zukeen bihotzean kimikorik senditzen. Halabaina, diruaren mutil itzaiteak bihotzeko begiak itsutzen bide zizkion!

Euskal Herrian ere, ez dugu holako kasu eskasik. Hala nola, Jesus Maria Zabartek, 9 urte honetan preso dagoenak eta 4. aldikotz gose grebari ekin dienak, bere idazki batean zioena (EGUNKARIA, 93-4-16): Baizik eta, Joseba Egibarrek, ET Aren aldeik bi hilabetezko tregu baten beharra eskatu ondoren, gartzelazainari ateratzen esan ziola: «Gogor ematen segi ezazue... Fuertek daude... Ez dira oraindik makurtzen!»...

Ardantzak eta Arzalluzek ere,aldi bat baino gehiagotan bota dituzte horrelatsuko solasak. Hots, gizontasunik batere duen bate inoiz esan behar ez lituzkeenak!...

Preso joaitaren zain ote daude horiek ere, zerbait senditzen hasteko?...

HEMEROTEKA



EL MUNDO

Gazteentzako kulebroi egokia

'Amedo kasuaz' gerotzik, delitu baten ikerketan akusatuak estatuko aparatuekin lotzen dituzten sare ilunak agertzen diren bakoitzean, Justiziaren abezea hizki bakar batera mugatzen da. X hizkira. Garrantzi gutxi dute ekintzen egile materialak izateaz akusatuta daudenen izenek, aitziatik, iriziti publikoak ustez horiek antolatzen, zuzentzen eta finantzatzen dituztenenak —maila bat gorago, bi edo askoz gehiago— jakin nahi ditu. 'Brouard kasuan' —bere peditaria kontsultan 1984ean soldatapeko hainbat mertzena-



TASIO / EGIN

rik metrailatutako buruzagi abertzalearenean— ez da beharrezkoa Estatuaren usteko etsaiengana jotzea susmo horiek indartzeko. Emilio Valeriok, sumarioaren instrukzioan parte hartu duten fiskaletako batek, aurreko astearte-ko saioan 'zerbitzu polizialetan ikerketa oztapatzea lortu zuen nolabaiteko sare beltz bat' badagoela salatu zuen.

EDITORIALA

egin

Balkandar ikasbideak

'Aukera guztiak oraindik zabalik daude' azpimarratu dute EEBBek eta Europako Komunitateak balkandar irageldiaren orainagoiko ekitaldian.

Europar eta estatubatuar gobernuek aukera militarra eskatu dute eta horren beldur dira.

EDITORIALA

ZUZENDARIARI

Zumaiarako Ikastola Publikoa nahi dugu

Azkenaldi honetan bat baino gehiago izan dira Zumaiako Ikastolaren geroa dela eta beren ahotsa entzun erazi ditugun erakundeak, eta hau honela, geuk ere gure eritzia plazaratzera erabaki dugu.

Beti esan ohi dugu Ikastolaren alde egon garelako, gaudela eta egongo garelako eta horregatik, hain zuzen ere, egin dugu Publikoaren aldeko apustua.

Baina zergatik, bada, Publikoaren alde? 1.- Euskal Eskola dohain baten alde gaudelako.

Orain arte gure Ikastola bereizkeria ekonomiko eta ideologikoen gainetik bere atek zabalduta eta euskera mugarik gabe hedatzen ahalagindu da. Orain, egoera ekonomiko okerragoan, ezinbestekoa iruditzen zaigu orain artekoari eustea euskeraz ikasteko aukera egiten duenei inolako mugarik jarri gabe.

2.- Euskal Eskola baten alde gaudelako. Ikastolak ahalagin haundiak egin ditu bere historian zehar euskera ahalik eta biz-

tanle kopuru handienari eskaintzeko eta ildo honetan betekizun integratzaile oso garrantzitsua jokatu du gure herrian. Gaur uka ezinezkoa da Julene Azepeitiak, eskola publikoak, euskalduntze arloan eman duen aitzera ezinezko pausua, bere burua D ereduak eskolatzaz joaz. Guzti honen aurretan eskaintzen ditugun Eskola Publikoko Legea guk amestu bezain ona ez izan arren, beldurrik gabe esan dezakegu Zumaiako herriaren kasuan, bederen, konfuziariari ematen diren baldintzak inoiz baino hobekak direla, onenak ez badira ere. Ez da bezar, gure ustez, ezkatuta eta luebakietara itzultzeko ordua, bai Ikastolak eta bai Julene Azepeiti eskolak egindako ahalaginak batu eta gure herriaren euskalduntzean pausu haundi bat emateko momentua baizik.

3.- Autonomiaren alde gaudelako.

Garaia da, gure ustez, Zumaiako egoera sakonki aztertzeko eta Euskal Herri Eskola berri baten oinarriak jartzen hasteko, herri mailako plangintza serio bat egiteko, gure proiektu pedagogikoa finkatzeko eta gainontzeko herrietako Ikastola eta Herri Eskolekin harremanetan eta elkarlanetan

hainbeste aldarrikatu dugun Euskal Eskola Publiko berria eraikitzen joateko.

4.- 3 eta 18 urte arteko kalitatezko Euskal Eskola baten alde gaudelako.

Betidaniki ikusi ditugu Zumaiako gazteak, behin adin bat ezkerrotzik, han eta hemen bere ikasketak burutu nahian eta orain indarrak elkaru ordez sakabanatzeak ez dio inolako mesederik egingo beti amestu dugun 18 urte bitarteko kalitatezko Euskal Eskola Zumaiaren bertan izateko goiari.

Azkenik, jakin badakigu, proposatzen dugun bidea ez dela bide samurra izango ez eta egun baterik bestera lortuko dugun nahia ere. Baina zailtasunak zailtasun, sinestuta gaude hau dugula benetan aukera zumaiarrok merzei dugun irakaskuntza behingoz eskuratzeko.

Oharra.- Gaia gehiago sakonduko dugu, hil honen 10ean (euskeraz) eta 11n (erderez) Profesional Zaharrea (Erriberakalean), Ikastolako gurasoei eskeimiko dizkiegun hitzaldietan.

IKASTOLA PUBLIKOAREN ALDEKO GURASO ETA IRAKASLE TALDEA

Zumaiak (Gipuzkoa)

GAIA JARRITA

Bernando Blanco

Bahitua zuten Filipinetan espainiar kristaua hara, txisagurea zeukala eta sekuestradoreek laga. Deskuido baten eskapatu zen ta orain bere algarra, Jaungoikoaren mirari dela Zabalduz lau haizetara; Jaungoikoaren miraria ez da hori kriston zortea da.

ZIGOR ENBEITA



Egunkaria

Batzorde: Patekidea 72564 E; Lege Gordailua: SS 800/90



OJDren IKUSKATZEA BIDERATUA

Administrazio Kontsultak: Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDI

Gerentse: FERMIN LAZKANO

Zuzendaria: INAKI URIA

Zuzendari-ordeak: LUZTEN ETXEZAHARRETA

Zuzendari Komertziala: JUAN INAZIO HARTSUAGA

Sustapena: NEREA AZURMENDI

Publizitatea: MARI JOSE SARASA

HELBIDEAK

Erredakzio eta Talerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02

Pabilioak / 20160 Lasarte-Oria / ☎: 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Egoitza soziala, Publizitatea eta Administrazioa: Antso

Jakintua, 16-1 / 20010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57

Arabak: San Antonio, 20-1 ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruthea / ☎: 17 80 7879 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1. eskuma. / 48002 Bilbo / ☎: 423 90 62 / Faxa: 423 94 60

Lapurd / Nafarroa Beherea / Zuberoa: 503 Posta kutxatila, / 64105 Baiona / ☎: 59 39 35 75 / Faxa: 59 25 75 11